

Prozesu penala

Genero- indarkeriaren biktimentzako informazio-gida





Logotipo honek identifikatzen ditu irakurketa zailtasunak dituzten pertsonentzat IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europek zehazturiko arauak jarraitzen dituzten materialak.

Dokumentu hau Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Errazak orraztua eta ziurtatua izan da.

Piktogramen egilea: Sergio Palao.

Jatorria: ARASAAC (<http://catedu.es/arasaac/>)

Lizentzia: CC (BY-NC-SA)

Dokumentu hau Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Batzorde Probintzialak landu du eta Arabako Batzorde Probintzialak zein Bizkaiko Batzorde Probintzialak ere bere egin du.

Diseinua eta maketazioa: GEN creativo / **Azalaren diseinua:** Begoña Paino Ortuzar

Aurkibidea



Salaketa 4 or

- Zer da?
- Non jarri?
- Nola jarri?
- Zure eskubideak
- Deklaratzeko hitzordua



Epaitegiko deklarazioa 8 or

- Zure deklarazioa
- Tokia
- Zure deklarazioaren ondoren



Babes-agindua 10 or

- Zer da?
- Nork eska dezake?
- Zer ekar dezake berekin?




Epaiketa 12 or

- Zer da?
- Noiz?
- Non?
- Aurretiko akordioa



La sententia 15 or

- Zer da?
- Errekurtsoa





Salaketa

Zer da?

Salaketa dokumentu bat da, non pertsona batek poliziari delitu edo falta baten berri ematen dion. Salaketa mota asko daude: lapurreta, indarkeria, iruzurra... Zure kasuan, emakumeen aurkako indarkeria-gertakariren batengatik izango da.



Non jarri?

Salaketa toki hauetan aurkez dezakezu:

- Ertzaintzaren edo udaltzaingoaren edozein **polizia-etxetan**.
- **Epaitegi** batean.

Nola jarri?

Zer gertatu zaizun kontatu behar duzu; horretarako, lagungarria izan daiteke gertaerak idatzita eramatea. Batez ere puntu hauek:

- Gertatu zaizun guztia, ez azken aldikoa bakarrik; jo, iraindu, mehatxatu, umiliatu egin zaituzten edo sexu-erasorik jaso duzun.
- Zure seme-alabak bertan zeuden ala ez, zerbait entzun duten edo haiek ere indarkeriarik jasan duten.
- Beste inork ikusi eta entzun duen zer gertatu zaizun.

Eskubidea duzu eskatzeko...:



- Zure helbide berria, telefonoa eta beste datu batzuk ez daitezela jakinarazi, salatuak ez baditu ezagutzen.



- Abokatu batekin hitz egitea salaketa jarri aurretik.
- Doako abokatua izatea, informazioa eta aholkua emango dizuna, bai salaketan zehar bai prozesuan zehar ere, epaitegian bertan.



- Zeinu-hizkuntzako edo beste hizkuntza batzuetako interpretea.



- Babes-agindu bat zuretzat, zure seme-alabentzat edo senideentzat.

Gogoratu:

**Amaitzen duzunean, salaketa sinatu behar duzu.
Sinatu aurretik, irakurri ondo eta egiaztatu kontatu duzun guztia dagoela.
Zalantzarik baduzu, galdetu.**



2008-09-01

Deklaratzeko hitzordua

Poliziak hitzordu bat emango dizu, epaitegira joateko eguna eta ordua adierazita.

Noiz izango da deklarazioa?

- Normalena, salaketa aurkeztu eta biharamunean izaten da.



- Beranduenez 3 egun geroago, **babes-agindua** aurkeztu baduzu.

Babesteko agindua:

Azalduko dizugu zer den 10. Orrialdean.

- Epaitegiak jakinarazten dizunean, poliziak ez badizu hitzordurik ematen salaketa aurkeztean.



Epaitegiko deklarazioa

Zure deklarazioa

Deklaratzeak esan nahi du kontatzea zer gertatu zaizun.
Epaileak gertaerei buruzko galderak egingo dizkizu.
Lekukorik dagoen ere esan dezakezu, zer gertatu den ikusi duten pertsonak,

eta eskura dituzun frogak entregatu: testu-mezuak,
argazkiak, grabazioak...

Auzitegi-mediku batek aztertu zaitzake, eta lesio fisikorik duzun begiratu, baina soilik zuk baimena emanaz gero.

Deklaraziorik ez egiteko eskubidea duzu.
Zure abokatuak horren berri emango dizu.
Deklaraziorik egiten ez baduzu, baliteke salaketak aurrera ez egitea.
Epaileak ikerketa eta epaiketa egitea erabaki dezake,
baina hori gertaeren, lesioen, lekukoen eta abarren arabera da.
Iritzia alda dezakezu, eta epaitegian esan
baietz, deklarazioa egin nahi duzula.

Deklarazioan, hauek baino ez dira egongo:

- Epailea
- **Fiskaltza**
- Zure abokatua
- Salatuaren abokatua

Fiskaltza: Estatuko abokatua, epaiketa batean delitu bat leporatzen duena.

Tokia



Zure deklarazioaren ondoren

Ondoren, epaileak galderak egingo dizkio salatuari.
Zu ez zara egongo hark deklaratzeko duenean.
Bi deklarazioak entzun ondoren,
epaileak erabakiko du zuri babes-agindua eman ala ez.
Ez emateak ez du esan nahi sinesten ez dizutenik;
salaketaren ikerketak aurrera segi dezake.

Gogoratu:

**Salatutako pertsona ez da inoiz bertan egongo deklaratzeko duzun bitartean.
Nahi duzun pertsonarekin egon zaitezke.**



Babes-agindua

Zer da?


Epaila batek bakarrik eman dezakeen agindu bat da.

Balio du zu, zure seme-alabak

eta zure ardurapean dauden pertsonak seguru egon zaitezten.

Bi babes-agindu mota daude: penalak eta zibilak.

Desberdinak dira ordenatzen dituzten gauzei eta iraun dezaketen denborari dagokienez.



Nork eska dezake?

- Zuk zeuk, polizia-etxean, salaketa jartzen duzunean, edo epaitegian, deklarazioa egiten duzunean.
- Fiskaltzak
- Epaileak.

Zer ekar dezake berekin?

Salatuarentzat:

- Zuregana, zure seme-alabengana edo senideengana hurbiltzeko debekua.
- Zure lantokira, etxera edo zu edo zure seme-alabak edo senideak egon ohi zareten lekuetara hurbiltzeko debekua.
- Ertzainek laguntzea etxera, bere gauzak jasotzera.

Zure segurtasunari begira:

- Etxeko sarraila aldatzea.
- Ertzaintzaren babesa: eskolta, eskumuturrekoa..., arriskurik badago.
- Ertzaintzaren babesa, zure gauzak jasotzera etxera zoazenean.

Zure seme-alaben segurtasunari begira:

- Zuk bakarrik erabiltzea etxebizitza.
- Erasotzaileak zure seme-alabei egin ohi dizkien bisitak bertan behera gelditzea, murritztea edo profesionalen begiradapean egitea.
- Erasotzaileak zuri mantenurako pentsio bat pasatu behar izatea.

Gogoratu:

**Babesteko agindua betetzen ez baduzu, poliziari jakinarazi behar diozu.
Babes-agindua zuen segurtasuna bermatzeko da.**



Epaiketa

Zer da?

Epaiketa batean, epaile batek gertaera batzuk aztertzen ditu bai eta inork legea urratu duen ere. Prozesuaren amaieran, erabaki bat dago, «epaia» deitzen dena.

Noiz?

Salatuak ukatzen baditu kontatu dituzun gertakariak epaileak ikertzen jarraituko du. Ikerketa horretarako, froga batzuk eskatuko ditu; besteak beste:

- Salatuaren deklarazioa, salatzailearena, lekukoena...

- **Auzitegi-medikuaren** txostenak, psikologoenak...

-Whatsapp-ak, mezuak, grabazioak...

Auzitegi-medikua: arazoak konpontzeko medikuntza aplikatzen duena Justiziako gatazkekin zerikusia dutenak.


Ikerketa amaitutakoan, hilabete batzuen buruan, epaiketa bat izango da, eta bertan berriro deklaratu beharko duzu.

Non?

Epaiketak epaitegietako epaiketa-aretoetan egiten dira.

Aretoan, hauek egongo dira:

- Epailea
- Fiskaltzak
- Zure abokatua
- Salatuaren abokatua
- Salatua



Zu aretotik kanpo egongo zara, deklaratzera deitu arte.
Erantzun bitartean akusatua ikusi nahi ez baduzu,
bideokonferentzia bidez deklaratzeko eska dezakezu.

Epaileak erabakiko du epaiketa-aretoan ez beste toki batean
deklaratzen duzun.

Epaiketan, lehendabizi Fiskaltzak galdetuko dizu, gero zure
abokatuak eta, azkenik, akusatuaren abokatuak.

Epaiketan, errespetuz tratatu beharko zaituzte denek.

Aurretiko akordioa



Epaiketa baino lehen, akusatuak onartzen badu
egia dela zuk kontatu duzuna, eta eskatzen badu kondenari
buruzko akordio batera iristea, zure abokatuak horren jakitun ipini
behar zaitu, ados zauden eta onartzen duzun jakiteko.

Akordio bat badago Fiskaltzaren, salatuaren eta zuren artean,
orduan ez da epaiketarik egongo.

Lortu den akordio hori bera izango da epaia.

Gogoratu:

**Komisarian zurekin egon zen abokatuak,
Epaiketan ere egongo da, edo, egon ez bazen, bere presentzia eskatu.
Salatutako pertsona ez ikustea eska dezakezu
Epaiketan deklaratzeko duzun bitartean.**



Epaia

Zer da?

Epaile batek epaiketa bat amaitzean legea aplikatuz hartzen duen erabakia da.

Bi epai mota daude:



Salatua kondenatzen duena. Zigor bat ezartzen dio eta bolada batez zurekin komunikatzea debekatzen dio; zuregana eta zure seme-alabengana hurbiltzea, eta zure etxera eta lantokira ere bai.



Zigorra espetxeratzea bada, eskubidea duzu jakiteko:

- noiz sartzen den espetxean
- noiz dituen kalera irteteko aldi baterako baimenak
- noiz geratuko den aske.



Salatua absolbitzen duena. Ez dio zigorrik ezartzen.

Horrek ez du esan nahi zure salaketa faltsua denik, nahikoa frogarik ez dagoela baizik.

Eska dezakezu posta elektronikoz edo zure etxera bidal diezazutela epaileak hartzen dituen erabakien berri: salaketa artxibatzea, epaia, espetxeratzea eta espetxetik ateratzea...

Errekurtsoa

Norbait epai batekin ados ez dagoenean, errekurtsoa jar daiteke, eta berrikusteko eskatu.

Errekurtsoa hauek jar dezakete:



- Fiskaltzak
- Zure abokatuak
- Kondenatuaren abokatua.

Babes-agindua baduzu, indarrean jarraituko du errekurtsoari erantzun arte.

Gogoratu:

Akusatua ez kondenatzea ez da zure salaketa faltsua izatea, baizik eta ez dagoela froga nahikorik pertsona kondenatzeko.